

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko ekainaren 3tik 7rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: EBZ

AURREIKUSPENAK

	2019		2020		2021	
	Anterior	Actual	Anterior	Actual	Anterior	Actual
Crecimiento	1,1%	1,2%	1,6%	1,4%	1,5%	1,4%
Inflación	1,2%	1,3%	1,5%	1,4%	1,6%	1,6%

Datuaren analisia


Aste honetan, **EBZk bilera** egin du. Erakundeak ez zituen tasak aldatu, eta adierazi zuen horrela mantenduko zituela behintzat 2020ko lehen erdialdera arte, edo inflazioa % 2tik gertu kokatzea lortu arte. Horrek esan nahi du lehen tasen igoera hurrengo urteko bigarren erdialdera arte atzeratuko dela gutxienez. Berrinbertsioei dagokienez, ez zen aldaketarik egon, eta denbora luzez egoera horrela mantenduko dela berretsi zuen erakundeak, tasak igotzeko prozesua hasten den uneaz harago. Gainera, TLTRO-III eragiketari buruzko xehetasunen berri eman zuen, 2019ko irailean hasi eta 2021eko martxoan amaituko dena, 2 urteko mugaegunarekin. Azkenik, EBZk bere hazkunde aurreikuspenak eguneratu zituen (2019: % 1,2 vs aurreko % 1,1, 2020: % 1,4 vs aurreko % 1,6 eta 2021: % 1,4 vs aurreko % 1,5).

Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 estatu kideen diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: PMI KONPOSATUA



Datuaren analisisia

Euroguneko PMI konposatua 51,8 puntutara igo zen apirileko 51,5etik, azken hiru hiletako irakurketarik onena, zerbitzuen sektorearen susperraldiari esker; izan ere, 52,9 puntutara igo baitzen aurreko hileko 52,8tik. Manufakturen datuak, ordea, okerrera egin zuen: PMI sektoriala 47,7 puntutara jaitsi zen aurreko hileko 47,9tik. Euroguneko ekonomia handienei begira, Alemaniak 52,6 puntuetaraino egin zuen hobera, hiru hiletako maximoa, eta Frantziako PMI konposatuak pixka bat gora egin zuen, 51,2 puntuetaraino, sei hiletan izan duen mailarik onena. Italian ere hobekuntza arin bat egon zen, baina oraindik 50 puntuen maila gainditu gabe.

Adierazlearen azalpena

PMI Konposatuaren indizeak erosketen profesionalei eta fabrikazioaren eta zerbitzuen sektoreko enpresetako exekutiboek hileroko bidaltzen zaizkien galdetegiaren erantzunak ditu oinarri. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisia

Enpleguaren hazkundera bat-batean eten zen maitzean, eta soldatak aurreikusi baino gutxiago hazi ziren. Beraz, ondoriozta daiteke jarduera ekonomikoaren gainbehera lan-merkatu lekualdatu dela, eta Erreserba Federalak presio handiagoa izan dezakeela interes-tasak jaisteko. Horiek horrela, nekazaritza-arlokoak ez diren nominak 75.000 gehiago izan ziren iragan hilean. Kontsultatutako ekonomialariek, baina, maitzean 185.000 lanpostu gehiago sortuko zirela espero zuten. Orduko batez besteko irabazia urte arteko % 3,1 handitu zen, urteko hazkunderik txikiena irailetik, eta langabezia-tasa % 3,6koa izan zen, azken ia 50 urteotako minimoa.

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: CAIXIN PMI MANUFATURA-INDIZEA



Datuaren analisisia

Caixin manufakturen PMIak merkatuko aurreikuspenak gainditu zituen maiatzean, eta 50eko mailatik goraxeago mantendu zen. Indizea 50,2an kokatu zen, espero ziren 50,0 puntuen aldean.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura-indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
06/10	Japonia	BoP oinarrizko merkataritza balantza	Â¥5.0b
06/10	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	% 0.6
06/10	Txina	Balantza komertziala	\$22.30b
06/10	Italia	Hileko industria-ekoizpena	% 0.0
06/10	Erresuma Batua	BPGd (MoM)	-% 0.1
06/10	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	-% 1.0
06/10	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-Â£4700m
06/11	Frantzia	Frantziako Bankuaren Pertzepzio indizea	100
06/11	Erresuma Batua	Erregistratutako langabezia	--
06/11	Eurogunea	Sentix inbertitzailearen konfiantza	2.5
06/11	Estatu Batuak	MoM IPP elikagairik eta energiari gabe	% 0.2
06/12	Txina	Urte arteko KPIa	% 2.7
06/12	Espania	MoM azpiko KPIa	--
06/12	Espania	Hileko KPIa	% 0.2
06/12	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0.1
06/12	Estatu Batuak	AEB Petrolio gordinaren inbentarioak DOE	--
06/13	Alemania	Hileko KPIa	% 0.2
06/13	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	-% 0.5
06/13	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	215k
06/14	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 5.4
06/14	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 8.0
06/14	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
06/14	Frantzia	Hileko KPIa	% 0.2
06/14	Italia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 0.9
06/14	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0.6
06/14	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.2
06/14	Estatu Batuak	Gaitasunaren erabilera	% 78.0
06/14	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	98.0
06/14	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	109.0
06/14	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	92.0

BURTSA:

Aste honetan, balantze positiboa mundu osoko burtsa-indizeetan. Banku Zentralen mezu lasaiagoek eta gerra komertzialaren tregoa aurrerapenak ekarri zituen Atlantikoaren bi aldeetara. Jerome Powell FEDeko presidentek interes-tasak jaisteko atea irekita utzi zuen, muga-zergen igoerak ekonomia estatubatuarrean izango duen eraginaren zain. Bestalde, EBZk erabaki zuen gutxienez 2020ko lehen seihilekora arte atzeratuko zuela interes-tasen edozein aldaketa, protekzionismoak eta gerra komertzialak eragindako hazkunde aukeren okerragotzearen aurrean. Horrez gain, EZBk TLTROS (III) eragiketari buruzko xehetasun gehiago jakinarazi zituen, eta finantza-baldintzak espero baino okerragoak direla jakin zen, banku-sektorean jaitsierak ekarri zituena. Fronte komertzialean, AEB eta Txinak itxaropen izpi bat piztu zuten, Asiako erraldoiak G-20 goi-bileran estatubatuarrekin bi aldeko bilera bat egingo duela baieztatu zuenean. Estatu Batuetako presidentek adierazi zuen G-20 goi-bilera ostera arte atzeratuko duela Txinako ondasun berriei tarifak (gutxienez 300.000 M\$) ezartzeko erabakia. Mexikoren eta AEBen artean ere aurrerapausoak eman ziren, nahiz eta oraindik ez diren migrazioa geldiarazteko konpromisoari buruzko xehetasun gehiegi ezagutzera eman. Beraz, Trumpek gaur bertan (ekainak 10) indarrean sartzen ziren muga-zergen mehatxua alde batera utzi zuen. Europako Batzordeak, bestalde, diziplina-espedita bat ireki zion Italiari, defizit helburuak ez betetzeagatik. Sektoreka, Google, Apple eta Amazon konpainia teknologikoen, besteak beste, jaitsiera nabarmenak izan zituzten, haien merkatu-posizioaren ustezko nagusikeriari buruz ikertuak izateko mehatxuaren aurrean.

ERRENTA FINKOIA:

FED tasak murrizteko prest agertzeak eta EBZk tasen igoera atzeratzeak beheranzko mugimenduak eragin zituen zor subiranoaren errentagarritasunetan, hala AEBetan nola Europan. Bada, hamar urterako bonu alemanaren errentagarritasuna 6 op jaitsi zen, $-\% 0,26$ raino. Bonu espainiarraren kasuan, hamar urterako tasa 16 op jaitsi zen, $\% 0,55$ eraino. Baliteke horren arrazoia Europako Batzordeak Espainiari 2009an gehiegizko defizitagatik irekitako espedita ixteko proposamena izatea. AEBetan, enpleguaren datua aurreikuspenen oso azpitik egon zen, eta erosketen aldeko mugimendua hauspotu zuen. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Euroak balioa irabazi zuen dolarraren aurrean, Fed-ek interes-tasak murrizteko aukeren aurrean eta AEBetako enpleguaren datu kaxkarrek eraginda. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa $\% 2,07$ igo zen. Negoziazio komertzialen tonu hobeketa eta LPEEko herrialdeek eta beste ekoizle batzuk ekoizpen-murrizketak luzatzeko aukerak on egin zioten kotizazioari. Urrearen bestetik, $\% 2,71$ igo zen, 1.340,81 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MSCI WORLD (Local)	1.626,09	3,44	12,81
IBEX 35	9.236,10	2,58	8,15
DJ EURO STOXX 50	3.378,38	2,99	12,56
DJ STOXX 50	3.119,49	2,52	13,02
FTSE	7.331,94	2,38	8,97
S&P 500	2.873,34	4,41	14,62
Dow Jones	25.983,94	4,71	11,39
NASDAQ	7.742,10	3,88	16,68
NIKKEI 225	20.884,71	1,38	4,35
MSCI GORAKORRAK (Lo)	56.136,66	0,60	5,08
MEXBOL	43.291,33	1,27	3,97
BOVESPA	97.821,26	0,82	11,30
SHANGHAI	2.961,80	-2,44	13,42
Errusia Rts Mosku	1.325,95	3,02	24,37

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,67	-0,01	-0,06
ESPAINIA 2 URTE	-0,38	-0,01	-0,14
AEB 2 URTE	1,85	-0,07	-0,64
ALEMANIA 10 URTE	-0,26	-0,06	-0,50
ESPAINIA 10 URTE	0,55	-0,16	-0,86
AEB 10 URTE	2,08	-0,04	-0,60
ALEMANIA 30 URTE	0,33	-0,10	-0,55
ESPAINIA 30 URTE	1,60	-0,26	-1,01
AEB 30 URTE	2,57	0,00	-0,44
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/24*	63,53	-7,72	-24,84
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24	282,45	-26,02	-71,23

DIBISAK	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
Dolarra / Euroa	1,13	1,59	-0,98
Yena / Euroa	122,61	1,22	-2,40
Libera / Euroa	0,89	0,65	-0,98
Lehengaiak			
Petrolio (Brendt)	64,23	2,07	20,80

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.